
A U R K E Z P E N A

Eskuartean duzun lana bezalako bat kaleratzen denean gertatu ohi denez, lokala eta bilduma modukoa, lanak berak islatzen duen gizartearen kemena agerian gelditzen da. Horixe da, hain zuzen, *Altza, hautsa kenduz* sortaren VI. ale honek erakusten diguna. Hemeretzi autorek eginiko hemeretzi artikuluek azpimarratzen dute esandako dena. Hainbeste jenderen zaletasun, oroimen, pasadizo eta iritziek, zer esanik ez, multzo heterogeneoa dakarte ondorio, baina erakusten duten kemen soziala ikaragarria da.

- **Las negras uñas del cangrejo** idazlanean, Juan GONZÁLEZ ANDRÉS idazleak –gero eta sari gehiago ari da jasotzen– ia guztioi ezaguna zaigun lekua sortzen du bere kontakizuna kokatzeko.
- Joan Mari IRIGOIENen **Pintzeladek**, mikro poema sozialak, halako egonezina sortzen digu hainbat iradokizun goxoki hausnar ditzagun.
- **Urruti eta era berean, gertu** Hala izendatu du Xanti ZAPIRAINek gaur eskaintzen digun bertso eta olerki bilduma, non, hizkera sakon eta xumez, gogora ekartzen dizkigun berriro itzuliko ez diren garaiak.
- **Altzako Pakon paranoiak**. Gizarte eta eguneroko gaiak ukitzen dituen bertso, ziri eta erretratu bilduma zorrotza. GAZTELUENE Bertso Eskola
- Manuel ZAPIRAINek berriz ere garamatza hainbat aldiz agertu den gaira. **Altza lenago zer zan**; aspaldikoa izanagatik geurea ere baden garai bateko apustu, gertaera, auzi eta haserreak.
- **El tamboril en las sidrerías de Alza**. Antxon AGUIRRE SORONDOK agintariek orain dela bi mende juxtu “ohitura onak babesteko” sartutako auzi baten berri ematen digu. Horixe baitzen eta ez beste, auziko alde biek nahi zutena.
- **Ezagutzen al duzu Altza?** Josu TELLABIDEk emango dizu erantzuna. Altzar askok ezagutzen ez badituzte ere, herriko hainbat leku esanguratsutan barrena garamatza Josuk.
- **Altzako Lizardi baserria** XVII. Mendea baino lehenagoko da, baina 1968n desjabetu eta eraitsi egin zuten. Alaitz SAN ROMANek kontatzen digu Altzako etxe dotore honen historia eta akabera.
- **Santa Maria de Hua de la Anunciada: “La ermita de Uba” (I)**. Angel CALVO. Autoreak berak aldarrikatzen duen bezalaxe, lan hau Ubako Amaren basilizari buruz historialari, idazle zein kazetariak urteen buruan argitaratutako artikuluen bilduma da.
- Pelegrinene baserriaren izena dela eta, ohikoa dugu Donejakue bidea bertatik igarotzen zela eta horri zor diola izena entzutea. Alabaina, Iñigo LANDA IJURKO ikertzaileak interpretazio hori berri samarra dela adierazten digu artikulua honetan: **Pelegrinene: “la casería de Pelegrin”**

- **Azterkosta'2000. Último estudio medioambiental del Siglo XX.** Juan Carlos LIZARAZU HERNANDO eta Arantza BENITO ARTUZAMUNOAK azaltzen digutenez, azken urteotan gure herriko itsasertza dezente hobetu izanagatik, oraindik orain lan handia gelditzen da egiteko hura kontserbatzekotan.
- **Aspaldiko txangoak.** JOXERRA autoreak orain dela 26 urte Aralarra egin zuen bere lehen igoaldia kontatzen digu.
- Imanol INZIARTEk Herrerako Mendizaleak kluba ofizialki sortu aurretiko urte-etera eramango gaitu hamaika bileratako akten eskutik. **La prehistoria del Mendi (1957-1960)**
- **Domingo de Piñata: una fiesta con raíces en Altza.** Larraitz GARMENDIA arduratu da sustrai horiek gure begi bistan ipintzen.
- **Recuperación del patrimonio de Altza.** “Historiak gerorako erreferentzia izan behar du, eta horrexegatik ekin genion buru-belarri Udaletxe zaharreko atzar gelako altzariak konpontzeari”. Hitz horiekin eman diote hasiera autoreek (HERRIPE) eginkizun zuten zereginari zergatik ekin zioten azaltzen diguten artikuluari..
- **Colegio SAN LUIS-LA SALLE Ikastetxea.** Altzako ikastetxe entzutetsu horrek 2003an beteko ditu 90 urte. H. Javier LORENZO CAMPO eta Segundo GARIN CASARES autoreek kontua nola hasi zen kontatu digute. Baita nola jarraitu zuen ere...
- **Boskotarrak, 25 años de historia.** Halako urteurren borobila aitzakia ezin hobea da atzera begiratu eta Boskotarrak elkarteko kideek urte horietan bizi izandako gorabeherei gainbegiratu bat egiteko: jatorria, jarduerak... Pelegrín GONZÁLEZen eskutik.
- **Altzatarras del barrio Miracruz.** Atzera begirako argazki bilduma. Auzoko hainbat pertsonaia ezagun, xeble eta ez hain ezagunen erretratuak. Joxian SAN ROMAN eta Jon SERRANO.

Eta ohi dugunez, amaitzeko *Altza, hautsa kenduz* sortaren aurreko zenbakietan argitaratutako lanak kontsultatu ahal izango ditugu liburuak azken aldera dakarren aurkibidean. Honako zenbaki hau ere zuen gustukoa izan dadila espero dugu. Laster arte.

P R E S E N T A C I Ó N

Como siempre que se publica una obra de carácter local y recopilatorio, como la que nos ocupa, suele quedar patente la viveza de la sociedad que la obra en cuestión refleja. En este sentido, buena muestra de ello es este nuevo número de *Altza, Hautsa Kenduz*. Diecinueve trabajos de otros tantos autores dan fe de cuanto decimos. Inquietudes, recuerdos, vivencias u opiniones de tanta gente no pueden sino resultar en un conjunto a la vez heterogéneo y variopinto, pero sin duda reflejo de una vitalidad envidiable.

- En **Las negras uñas del cangrejo**, Juan GONZÁLEZ ANDRÉS, escritor cada vez más premiado y conocido, nos recrea un paisaje cercano para casi todos, donde ubica los hechos que conforman su relato.
- Joan Mari IRIGOIEN nos crea con sus micropoemas un cierto desasosiego que nos invita a la reflexión de la manera más cálida: **Pintzeladak**.
- **Urruti eta era berean, gertu** es el título de la recopilación de bertsos y poemas que nos brinda Xanti ZAPIRAIN, donde, en ese lenguaje tan profundo como sencillo, nuevamente nos transmite una visión de unos tiempos que ya no volverán.
- **Altzako Pakon paranoiak**. Una preciosa colección de bertsos en la más tradicional línea de crítica y puya social, amén de galería de retratos. GAZTELUENE Bertso Eskola
- Manuel ZAPIRAIN nos transporta en **Altza lenago zer zan** a un tema recurrente en esta colección, cual es la rememoranza de sucedidos, apuestas y enfados varios, situados en una época que no por pasada nos resulta ajena.
- **El tamboril en las sidrerías de Alza**. Antxon AGUIRRE SORONDO nos cuenta la historia de un pleito interpuesto hace ahora dos siglos exactos en salvaguarda de las buenas costumbres. Porque ambas partes litigantes no pretendían otra cosa que defender lo bueno, por supuesto.
- En **Ezagutzen al duzu Altza?** Josu TELLABIDE nos guía en un paseo por los lugares más emblemáticos de Altza, aunque no por ello conocidos por los altzataras.
- **Altzako Lizardi baserria** fue construido antes del siglo XVII, pero en 1968 fue expropiado y derribado, con lo que se perdió uno de los edificios más notables de Altza. Por Alaitz SAN ROMAN
- **Santa María de Hua de la Anunciada: “La ermita de Uba” (I)**. Angel CALVO. Como el propio autor proclama, este trabajo es una recopilación de artículos relacionados con la Ermita de Uba, que a través del tiempo han tratado en diversas publicaciones estimados historiadores, escritores y periodistas.
- Pelegríne ha sido tradicionalmente sujeto de una historia que lo vincula al Camino de Santiago. No obstante, Iñigo LANDA IJURKO nos explica que esa interpretación es bastante reciente. **Pelegríne: “la casería de Pelegrin”**

- **Azterkosta'2000. Último estudio medioambiental del Siglo XX.** Juan Carlos LIZARAZU HERNANDO y Arantza BENITO ARTUZAMUNOA nos explican que, pese a que se observan mejoras, la conservación del ecosistema costero en nuestro pueblo aún precisa de mucho trabajo adicional.
- **Aspaldiko txangoak.** Una recreación personal de la primera ascensión del autor a Aralar, hace ahora 26 años. JOXERRA
- Imanol INZIARTE nos retrotrae a los años anteriores a la fundación oficial del club a través de las actas de mil y una reuniones. **La prehistoria del Mendi (1957-1960)**
- **Domingo de Piñata: una fiesta con raíces en Altza.** Raíces que Larraitz GARMENDIA se encarga de desenterrar para todos nosotros en este artículo.
- **Recuperación del patrimonio de Altza.** “La historia debe ser una referencia para el futuro y por ello nos metimos de pleno en la recuperación de los muebles de la sala de juntas de nuestra Alcaldía” Así comienzan los autores (HERRIPE) la narración de cómo se decidieron a abordar esta asignatura pendiente.
- **Colegio SAN LUIS-LA SALLE Ikastetxea.** En 2003 se cumplirá el 90º aniversario de este emblemático colegio altzatarra. Los autores, H. Javier LORENZO CAMPO y D. Segundo GARIN CASARES nos refieren cómo empezó todo... y como siguió.
- **Boskotarrak, 25 años de historia.** Un aniversario tan redondo es la excusa para hacer un repaso del devenir humano de esta ya señera sociedad: orígenes, actividades, avatares... De la pluma de Pelegrín GONZÁLEZ
- **Altzatarra del barrio Miracruz.** Retrospectiva fotográfica en la que nos presentan, en una preciosa galería de retratos, a renombrados y no tan renombrados personajes del barrio. Joxian SAN ROMAN, Jon SERRANO

Y como viene siendo costumbre, para finalizar podemos consultar los trabajos publicados en anteriores “Altza, hautsa kenduz” en el índice del final del libro. Esperamos que esta nueva entrega sea también de vuestro agrado. Hasta pronto.